

Soraluzeko

XXXIX. IDAZLAN LEHIAKETA

A maila



SORALUZEKO
UDALA

Euskal Herrian zehar

A maila
1. saria
IZAR UZIN
ZUBIZARRETA

Behin batean, 2014ko azaroaren 23an, Gasteizen bizi zen 9 urte zituen Sua izeneko neskato batek, Euskal Herria ezagutu nahi zuen. Suak, anai nagusiago bat zuen Anartz izenekoa, eta 13 urte zituen. Anartzek ere Euskal Herria ezagutu nahi zuen, baina gurasoek ez.

Azkenean, gurasoek hau esan zien:

-Ados, Euskal Herria ezagutuko duzue, baina izebarekin joango zarete bere helikopteroan, azkarrago joango zaretelako eta gu ospitalera joan behar garelako aitona eta amona bisitatzera. Bihar joango zarete.

Sua eta Anartz hori entzun zutenean poz-pozik jarri ziren. Hurrengo egunean, 2014ko azaroaren 24an, goiz goizean jaiki, gosaldu, jantzi eta Sua eta Anartz izebaren etxera joan ziren. Atea jo eta izeba atera bezain laster hau esan zien:

-Egunon! Zer moduz zaudete? Bidaia on baterako prest?

-Bai!-esan zuten Sua eta Anartzek.

Helikopteroaren bila joan, eta denak eseri ziren beren jarlekuetan eta hegan atera zen. Hor goitik den-dena ikusten zen. Gasteiz guztia pasatu eta urrunago joan ziren Donostia ikusi zuten arte, hor herrira jaitsi ziren eta Kursala, Maria Kristina hotela eta Miramar jauregia ikusi eta gero helikopterora bueltatu nahi zuten. Baina... ez zuten aurkitzen! Herri guzitik bilatu zuten eta ez zen agertzen. Suak gose handia zuenez hau esan zuen:

-Gose handia daukat. Jatetxe batera joan nahi dut bazkaltzera.

Gero, ondoan zegoen jatetxe batera joan ziren eta bazkaltzen zeuden bitartean, helikopteroa bilatzeko zer egin ahal zuten pentsatzen jarri ziren.

-Eta bidea atzerantz egiten badugu? Seguru aurkituko dugula-esan zuen Suak.

-Niri ondo iruditzen zait- erantzun zuen izebak.

-Niri ere- jarraitu zuen Anartzek.

Bazkaldu eta gero bidea atzerantz egin zuten. Denbora guztian alboetara begira zeuden, helikopteroa bilatzeko, eta ez zen agertzen, baina azkenean... aurkitu zuten! Poz-pozik eseri ziren helikopteroko jarlekuan. Ondoren beste herri batzuk bisitatu zituzten eta denetik ikusi zuten: jendea futbolean jolasten, mendian ibiltzen eta Soraluzen Izartxo txiki bat, egun berean jaiotakoa.

Azkenean neka-nekatuta itzuli ziren Gasteizera eta egun horretan segituan hartu zuten lo.

Hori hala bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila Gasteizeko plazan.

Tenplu desagertua

A maila
2. saria
LIBE ELORTZA
UGALDE

Bazen behin esploratzaile bat Ane izenekoa. Asko gustatzen zitzaion esploratzea baina ez zuen inoiz gauza baliotsurik aurkitzen. Oraintxe kontatuko dizuet behin gertatu zitzaion abentura handi bat. Prestatu eta has gaitezen irakurtzen!

Astelehen goiz batean hasi zen dena. Ane lagun batekin geldituta zegoen. Bere laguna Nora deitzen zen. Anek Norari esan zion:

- Joango gara mendira buelta bat ematera?- Eta Norak esan zuen:

-Bai, goazen!

Eta orduan biak motxila prestatu eta badoaz. Ordu bete geroago jada mendi puntan zeuden. Motxilatik janaria atera eta hamaiketakoa jaten hasi ziren. Norak, jaten ari zen bitartean, kutxa bat ikusi zuen. Aneri abisatu zion. Zabaldu zutenean mapa bat ikusi zuten oso zaharra.

- Hara, mapa bat!-esan zuen Anek.

- Zer izango ote da? Altxorra?

- Goazen altxorraren bila!-esan zuen Norak.

Baina Ane konturatu zen ez zegoela X-rik mapetan agertzen dena. Giltza bat bakarrik agertzen zen. Momentu batean pentsakor gelditu ziren biak.

- Badakit zer den!-esan zuen Norak

- Altxorrarentzako giltza da!-esan zuen Norak.

- Goazen giltzaren bila!

20 minutu pasatu zirenerako basoan galduta zeuden.

-Zer egingo dugu? Basoan galduta gaude!-esan zuen Norak

Bat batean gizon bat agertu zen eta esan zien:

- Zer zabilzate basoan galduta eta bakarrik?-galdetu zien
- Ba hamaiketakoa jatera etorri gara baina mapa bat ikusi dugu eta horri jarraitzen hasi gara -esan zuen Norak.
- Mapa bat?-esan zuen gizonak. -Zeren mapa?
- Giltza batena-esan zuen Anek
- Ezagutzen dut mapa hori-esan zuen gizonak

Beldurgarri xamarra ematen zuen eta ez ziren gai galdetzeko ea bazekien zer zen mapa hori. Korrika joan ziren baina gizonak atzetik jarraitzen zien.

- Utzi zuekin joaten! – esan zien gizonak.

Baina neskak izutu egiten ziren. Gelditu zirenean gizona haiengana joan zen. Bere izena Arturo zen. 5 minutu igaro ziren eta jada kontatu zien zer zen mapa hori. Mapa tenplu bateko giltza baten mapa zen. Tenpluaren bila joan zirenean gutxi falta zen tenplura heltzeko baina bidean beste kutxa bat ikusi zuten. Haren bila joan zirenean eta zabaldu zutenean giltza zegoen.

- Giltza da! – esan zuten denek batera.

30 minutu geroago korrika joan ziren eta konturatu zirenerako tenplua aurpegi aurrean zuten.

- Tenplua da! – oihukatu zuten denek. Giltza hartu eta tenplua zabaldu zuten.

Altxor pila zegoen. Ez zuten ezer hartu ez zutelako historia izorrratu nahi. Etxera joan eta jolastera joan ziren eta ez zuten inoiz ahaztu esperientzia hori.

Fantasia ematen duten gauzak

A maila
3. saria
HELENE
MOYA SORIA

Kaixo ni Andere naiz eta gaur ipuin oso berezia kontatuko dizuet. Hasiko naiz.

Bazen behin, orain ez dela asko, Emma eta Luken deitzen ziren anai- arreba batzuk. Oso trankil zeuden beraien etxean, baina amak eta aitak albiste bat eman zieten.

- Osabaren etxera joango zarete udan- esan zuen amak-.
- ZER!!! - esan zuen Lukenek- ez, ez, ez naiz joango gure osabaren etxera.
- Benga Luken, ondo pasatuko dugula! -esan zuen Emmak.
- Ez dut uste - esan zuen Lukenek
- Bueno, bueno eta noiz joango gera? esan zuen Emmak.
- Ostiralean - esan zuen amak, - Benga, maletak egitera. Umeak espero ez zutena uda hartan zer ikusiko zuten zen. Heldu zirenean bere osabaren etxea ez zegoen hain ondo.
- Hemen egingo dugu lo? - esan zuen Emmak.
- Paseo bat ematera joango gara? Galdetu zion Lukenek Emmari,
- Bai, goazen - erantzun zion Emmak.

Basora heldu zirenean zuhaitz nahiko arraroa ikusi zuten.

- HARA!!! Kapsula bat bezala zabaldu da - esan zuen Lukenek, - Eguneroko bat ematen du! - esan zuen Emmak
- Bai, baina arraroa.

Eguneroko arraro hartan pila bat gauza jartzen zituen. Herri hartan gauza arraroak gertatzen ziren, eta bapatean zuhaixka bat mugitzen hasi zen eta ez zen haizeagatik, eta... monstruo bat agertu zen oso handia, iletsua eta zatarra zen. Gainera basoan zeuden eta inork ez zituen entzuten umeek oihuak. Biak korriketan hasi ziren.

- Lagundu, lagundu!!! - oihukatu zuten biak, inork ez zituen entzuten.

Biak oso izututa zeuden, baina azkenean bere osabaren etxera heldu ziren ia-ia izaki horrek umeak harrapatzen ditu. Baina bere osaba telebista ikusten zegoen ezer pasatuko ez balitz bezala.

- Eta hemendik aurrera, zer gertatuko da? -galdetu zuen Emmak,
- Ez dakit - erantzun zuen Lukenek.

Bapatean Luken esnatu zen. Bere ahizpa lo zegoen. Dena amets bat izan zen. Beraien etxean zeuden.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Plaentxiko plazan.